



Euskal Sektore Publikoko IKTen Plan Estrategikoa (IKTPE) 2021-2024

Eusko Jaurlaritza



Aurkibidea	Dokumentuaren edukiak	2
0. Kapitulu	IKTPE 2021-2024rako sarrera	3
1. Kapitulu	Euskal sektore publikoaren etorkizuneko IKT ereduaren funtsezko elementuak	8
2. Kapitulu	EAEko Sektore Publikoko IKT ereduaren xedea, 2024ko ikuspegia eta balioak	18
3. Kapitulu	2021-2024 IKTPEn helburu, ardatz eta ildo estrategikoak	22
4. Kapitulu	IKTPEn ekintza-plana 2021-2024	27
5. Kapitulu	IKTPEn ezarpen- eta jarraipen-eredua	73
Eranskina		81

0. Kapitulu

IKTPE 2021-2024rako sarrera

0.1. | IKTen kudeaketa euskal sektore publikoan

2016an, Eusko Jaurlaritzak **konbergentzia-prozesu globala** abiarazi zuen IKTen arloan, **EAEko Sektore Publikoan IKTen kudeaketan eraginkortasun operatibo handiagoa** lortzeko.

Euskal sektore publikoko IKT konbergentziaren prozesu globalaren helburuak



Helburu horiei erantzute aldera, IKT konbergentzia-eredu orokorra, euskal sektore publikorako definitu zena, lau arlo nagusitan egituratutako integrazioan oinarritu zen: DPZko Azpiegiturak, Komunikazioak, Lanpostua eta Zerbitzu korporatiboak [AKLZ].

Euskal Sektore Publikoko IKT konbergentziaren Eredu Orokorra




Berrikiago, 2020an, **36/2020 Dekretua** onartu da, zeinaren bidez Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak arautzen baitu **IKTak Euskal Sektore Publikoan Kudeatzeko Eredua**. Eredu honek **IKTen arloko politika komun eta konbergentea** bultzatu nahi du, Eusko Jaurlaritzaren estrategiarekin eta helburu orokorrekin koherentea eta lerrokatua, **antolaketa-mekanismo koordinatu, eraginkor eta jasangarriak** ezarriz Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakunde guztiei zerbitzuak emateko.

Euskal Sektore Publikoko IKT Kudeaketa Ereduak zer erronkari erantzuten dion



Dekretu honek, beste alderdi batzuen artean, **euskal sektore publikoaren IKTen arloko plangintza estrategikoaren** oinarriak ezartzen ditu. Plangintza hori **IKT Plan Estrategikoaren** bidez zehaztu behar da, Segurtasun Sailari arlo horretan dagozkion berezitasunak kontuan hartuta, eta hori, IKTen Dekretuaren 4.3 artikuluan adierazitakoaren arabera, plan honen A.4 eranskin gisa gehitu zaio aipatutako sailari. Ildo horretan, Dekretuak zehazten du plangintza estrategiko horrek **koherentea** izan beharko duela Euskal Sektore Publikoko IKT Kudeaketa Ereduaren printzipio antolatzaileekin.

Euskal Sektore Publikoko IKT kudeaketa-eredua antolatzeko printzipioak




0.2. | IKTen Plan Estrategikoa (IKTPE) 2021-2024

Testuinguru horretan, 2021-2024 IKT Plan Estrategikoa **beharrezko tresna** da 36/2020 Dekretuan jasotako **printzipio antolatzaileak hedatzeko, Euskal Sektore Publikoaren etorkizuneko IKT Eredua zehaztuz** eta hura **garatzeko plangintza** eginez IKTPEren indarraldian.

IKTPE 2021-2024 plana lantzearekin lotutako emaitzak eta onurak




*Proiektu berrien kontzeptualizazioa hobetzea eta erraztea, non teknologia ez den mugatzailea, baizik eta administrazioaren eta administratuen arteko **harreman-zerbitzuak sortzeko modu berriak** garatzeko **palanka bideratzailea***



Emaitza eta onura horiei erantzute aldera, **2021-2024 IKTPEk** zenbait **elementu estrategiko** ditu **ardatz, datozen** urteetan euskal sektore publikoaren **etorkizuneko IKT eredia garatzeko** egin beharreko bidea sakonean eta forman orientatzeko.

2021-2024 aldirako IKTPEaren elementu estrategikoak



1. Kapitulu


Euskal sektore publikoaren
etorkizuneko IKT ereduaren
funtsezko elementuak

1.1. | Euskal sektore publikoaren etorkizuneko IKT ereduaren ikuspegi orokorra

Etorkizuneko IKT ereduak ahalegina egin beharko du euskal sektore publikoaren baliabideak sektore horrek harremanak izango dituen kolektiboen premiekin bat etor daitezzen.

Etorkizuneko IKT ereduak, euskal sektore publikoa osatzen duten eragileentzat ez ezik, herritarrentzat, sektore pribaturako, euskal sektore publikoko bazkide eta kolaboratzaileentzat eta EAEko gainerako administrazio publikoentzat ere izan behar du.

Etorkizuneko IKT ereduak euskal sektore publikoaren IKTen kudeaketa, estandarizazio eta arrazionalizazio teknologikoa eta IKTen bidez gizarteari balioa ematea sustatzeko teknologia, tresna eta metodologia guztiak bildu behar ditu.



Etorkizuneko IKT eredia funtsezko **elementu** batzuetan oinarrituko da, **eraldaketa digitala eta IKTen kudeaketa bultzatzea Euskal Sektore Publikoan**.

Euskal Sektore Publikoaren etorkizuneko IKT ereduaren funtsezko elementuak

IKT gobernantza eta antolaketa eredia


IKTen gobernantza- eta antolaketa-ereduaren helburua da Euskal Sektore Publikoan IKTen kudeaketa gauzatzeko garatu behar diren rolen eta funtzioen multzoa antolatzea.

Euskal Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Kudeatzeko Eredua arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuan aurreikusitako eginkizunak hedatzeko oinarria eraten du.

Teknologia eta irtenbide adimendunak

Etorkizuneko IKT eredia Euskal Sektore Publikoa EAEko IKT ekosistemaren nukleo gisa kokatzen duten teknologia eta irtenbide adimendunetan oinarritu behar da.

Teknologia horiek honako hauek bultzatu beharko dituzte: erabiltzailearen esperientzia, herritarrentzako zerbitzuaren kalitatea, administrazioak IKT ekosistemarekin duen harremana, administrazioaren barne-hobekuntza, lankidetzak publikoa eta adimena Euskal Sektore Publikoaren jardueran.



Eusko Jaurlaritzaren estandar teknologikoak

Estandar teknologikoek Eusko Jaurlaritzak hedatutako eta EJIEk kudeatzen dituen zerbitzuei euskarri ematen dieten espezifikazioak eta eskakizunak jasotzen dituzte.

Horietan, Euskal Sektore Publikoko Informazio Sistemak garatzeko, kudeatzeko eta hedatzeko erabiltzen diren estandarrik eta produktuak definitzen dira.

Batera Zerbitzuen Katalogoa

Batera Zerbitzuen Katalogoak EJIEk, IKT organo kudeatzailea den aldetik, eskaini eta bateratu beharreko IKT zerbitzuen betekizunak ezartzen ditu.

Katalogo hau 4 konbergentzia-eremurik osatzen dute: azpiegiturak, komunikazioak, lanpostua eta zerbitzu korporatiboak; eta bi xehetasun-maila bereizten ditu: zerbitzuak eta funtsezko elementuak.

1.2. | IKT gobernantza- eta antolaketa-eredua

Euskal Sektore Publikoko IKT gobernantza- eta antolaketa-ereduaren helburua da **Euskal Sektore Publikoan IKT kudeaketa** gauzatzeko garatu behar diren **rol eta funtzioen multzoa** antolatzea. Helburu horrekin, IKT gobernantza-ereduak elementu hauek ditu:

IKT gobernantza-funtzioen mapa

1 IKT gobernantza-funtzioen mapak zehazten du zer **eremutan egituratzen den IKT gobernantza** euskal sektore publikoan, bai eta eremu horietako bakoitzari lotutako **gobernantza-funtzioak** ere.

1. Zeharkako gobernantza

1.1. Gobernantza estrategikoa

1.2. Finantza gobernantza

1.3. Berrikuntzaren gobernantza

1.4. Datuaren gobernantza

1.5. Aldaketaren kudeaketaren gobernantza

2. Zerbitzuaren gobernantza

2.1. Kalitearen gobernantza

2.2. Eskariaren gobernantza

2.3. IKT soluzio eta zerbitzuen gobernantza

2.4. Fakturazio-ereduaren gobernantza

2.5. Horniduraren gobernantza

3. Arriskuen eta segurtasunaren gobernantza

3.1. Arriskuen gobernantza

3.2. Segurtasunaren gobernantza

IKT gobernantza-organoak

2 IKT gobernantza-organoak dira IKTen kudeaketan inplikaturik **dauden** euskal sektore publikoko hainbat rol eta eragile koordinatzeko tresnak edo guneak.

1

1. Zeharkako gobernantza

1.1. Gobernantza estrategikoa

IKTen Batzorde Estrategikoa

Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako Sailburuordetza

IKT Zuzendaritza

Bokal bat agente bakoitzeko

Eusko Jaurlaritzako sailak

Bokal bat agente bakoitzeko

- IVAP
- Eustat
- Lanbide
- EITB
- Osakidetza
- SPRI
- HAZI

Bokal bat agente bakoitzeko

- Ogasuna
- Administrazio elektronikoa
- Segurtasun Publikoa
- Hezkuntza-sarea
- Justizia-sarea

Bokal bat agente bakoitzeko (botorik gabe)

- EJIE
- Itelazpi

2. Zerbitzuaren gobernantza

2

3. Arriskuen eta segurtasunaren gobernantza

IKT gobernantzako organo operatiboak

Eskariaren gobernantza-organoa

Sare, sail eta erakundeetako IKT arduradunak

- IKTZ
- EJIE

AKLZ Batzordea (IKT soluzioak eta zerbitzuak)

Sare, sail eta erakundeetako IKT arduradunak

- IKTZ
- EJIE

GureSeK (segurtasuna)

Gobernu Kontseiluaren 2015eko ekainaren 30eko Erabakian ezarritako osaera

IKTen antolaketa: IKTen gobernanzarako rolak

3 IKT gobernantza-eredua hedatzeko, eredu horretan islatutako gobernantza-funtzioak betetzeko ardura duten zenbait rol behar dira.

1. Zeharkako gobernantza

1.1. Gobernantza estrategikoa

- IKT plangintzaren kudeaketa

1.2. Finantza gobernantza

- Finantza-kudeaketa

1.3. Berrikuntzaren gobernantza

- Zaintza teknologikoaren eta berrikuntzaren kudeaketa

1.4. Datuaren gobernantza

- Datuen kudeaketa

1.5. Aldaketaren kudeaketaren gobernantza

- Aldaketaren kudeaketa

2. Zerbitzuaren gobernantza

2.1. Kalitatearen gobernantza

- Kalitatearen kudeaketa

2.2. Eskariaren gobernantza

- Bezeroen kudeaketa

2.3. IKT soluzio eta zerbitzuen gobernantza

- Soluzioen kudeaketa
- IKT zerbitzuen kudeaketa
- UX kudeaketa

2.4. Fakturazio-ereduaren gobernantza

- Finantza kudeaketa

2.5. Horniduraren gobernantza

- Kontratazioaren kudeaketa

3. Arriskuen eta segurtasunaren gobernantza

3.1. Arriskuen gobernantza

- Arriskuen kudeaketa

3.2. Segurtasunaren gobernantza

- Informazioaren segurtasunaren kudeaketa


Rol: pertsona batek betetzen dituen funtzio multzoa. Pertsona batek komenigarriak diren rol guztiak har ditzake; eta eginkizun bakarra pertsona batek edo gehiagok har dezakete.

1.3. | Batera Zerbitzuen Katalogoa

Batera Zerbitzuen Katalogoak EJIEk, IKTak kudeatzen dituen organoa den aldetik, **bateratu** eta eskaini beharreko IKT zerbitzuen betekizunak ezartzen ditu.


Konbergentzia arloko jarduera plan orokorra onartu zuen Gobernu Akordioan definitutako AKLZ zerbitzuak

Erakundeek eskatutako zerbitzu berriak



Joera teknologiko berrietan oinarritutako zerbitzu berriak

Batera Zerbitzuen Katalogoa **4 konbergentzia-eremuk** osatzen dute: **azpiegiturak, komunikazioak, lanpostua** eta **zerbitzu korporatiboak**; eta bi xehetasun-maila bereizten ditu: **zerbitzuak** eta **funtsezko elementuak**.



Jarraian, **Batera Zerbitzuen Katalogoan** jasotako zerbitzu espezifikoak islatzen dira, 4 konbergentzia-eremuen inguruan egituratuta.

Eremua	Zerbitzua	Zerbitzuaren funtsezko elementuak
Azpiegitura	1. <i>Housing</i>	1.1. Espazio fisikoa eta azpiegitura-elementuak txertatzea
	2. <i>Hosting</i>	2.1. XPaaS zerbitzua
	3. <i>IaaS</i>	3.1. Zerbitzari birtualak 3.2. Zerbitzari fisiko dedikatuak
	4. Biltegitratzea	4.1. <i>Storage as a Service</i> zerbitzua
	5. <i>Backup</i>	5.1. <i>Backup as a Service</i> zerbitzua
Komunikazioak	1. WAN azpiegitura pasiboa	1.1. Datuen transmisioa
	2. Kudeatutako SMSa	2.1. SMSak bidaltzeko eta jasotzeko zerbitzu orokorra
	3. Ahotsa	3.1. Ahots finko publikoa 3.2. IP ahotsa (ahots finko pribatua) 3.3. IVR
	4. Komunikazio mugikorak	4.1. Zerbitzu-eskaintzaren definizioa eta zerbitzuaren segurtasunaren analisia
	5. Nabigazioa	5.1. Banda-zabalera 5.2. Nabigazio segurua
	6. Urruneko konexio segurua	6.1. Sare birtual pribatuak
	7. Bideokonferentzia-zerbitzua	7.1. Hona konektatutako pertsonen arteko bideokonferentzia
	8. Lan eta WiFi konektibitatearen kudeaketa (eraikinen konektibitatearen kudeaketa)	8.1. Lan eta WiFi konexioak inplementatzea
Lanpostua	1. Mahaigain birtualaren zerbitzua (Lekuona)	1.1. Mahaigain birtuala (VDI) 1.2. Aplikazioen birmoldaketa
	2. Inprimaketaren kudeaketa	2.1. Inprimaketaren kudeaketa
	3. Hornidura informatikoa	3.1. Lanpostuko produktuen katalogoa
		3.2. Plataformaren kudeaketa eta mantentze-lanak (hornidura informatikoa)
		3.3. Maketa kudeatzea eta mantentzea (hornidura informatikoa)
3.4. Lanpostuaren logistika 3.5. Lanpostu- eta enpresa-lizentzien logistika		
Zerbitzu Korporatiboak	1. Lankidetzaren eta Komunikazio Zerbitzua (Elkarlan)	1.1. Posta elektronikoa
		1.2. Lankidetzaren-espazioak
		1.3. Komunikazio bateratua
		1.4. Fitxategiak Partekatu eta Sinkronizatzeko Zerbitzua
	2. Segurtasuneko Eragiketen Zentroa	2.1. Segurtasuneko Eragiketen Zentroaren zerbitzua
	3. Plataforma-zerbitzuak	3.1. <i>Blockchain</i> plataforma komuna 3.2. AA eta automatizazio plataforma komuna 3.3. Analitikako plataforma komuna (Big Data barne)

1.4. | Eusko Jaurlaritzaren estandar teknologikoak

Estandar teknologikoek **Eusko Jaurlaritzak hedatutako zerbitzuen** euskarri diren eta EJIEk kudeatzen dituen beharrezko **zehaztapenak** eta **baldintzak** biltzen dituzte. Horietan, euskal sektore publikoko informazio-sistemak **garatzeko, kudeatzeko eta hedatzeko** erabiltzen diren estandarrak eta produktuak definitzen dira.

Estandar teknologikoen helburuak




Jarraian, **Batera Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuekin lotutako estandarrak** laburbiltzen dira, komunikazio-zerbitzuak izan ezik, gaur egun ez baitute estandar teknologikorik. Estandar guztiek, ahal den neurrian, **kode irekiko** plataformak dituzte, hornitzaileekiko mendekotasuna mugatzen dutenak.

Eremua	Zerbitzua	Estandar teknologikoa
Azpiegitura	1. <i>Housing</i>	Backend zerbitzarien plataformak
	2. <i>Hosting</i>	Front zerbitzariak, web zerbitzariak eta aplikazio-zerbitzariak
	3. <i>IaaS</i>	Backend zerbitzarien plataformak
	4. Biltegiatzea	Dokumentuen kudeaketa, datu-baseen zerbitzariak
	5. <i>Backup</i>	EMC Networker, Bacula
Lanpostua	1. Mahaigain Birtualaren Zerbitzua (Lekuona)	Vmware Horizon Windows advanced server eta Samba 4.13.
	2. Inprimaketaren kudeaketa	Plataforma jasoak (Windows 10, Ubuntu 20, Office365, Libreoffice7) eta konfiguradoreak
	3. Hornidura informatikoa	Office 365
Zerbitzu Korporatiboak	1. Elkarlan - Lankidetzaren eta Komunikazio Zerbitzua	<ez da aplikagarria>
	2. Segurtasun Eragiketen Zentroa	Backend zerbitzarien plataformak
	3. Plataforma-zerbitzuak	Ethereum Watson, TensorFlow Hadoop, Spark

1.5. | Teknologia eta irtenbide adimendunak

Etorkizuneko IKT Eredua **teknologia eta irtenbide adimendunetan** oinarritu behar da, **EAEko IKT ekosistemaren muina** Euskal Sektore Publikoa izan dadin.



2. Kapitulu

EAEko Sektore Publikoko IKT
ereduaren xedea, 2024ko
ikuspegia eta balioak

2.1. | Euskal Sektore Publikoko IKT ereduaren misioa

Euskal Sektore Publikoaren IKT Ereduaren misioak haren beraren oinarri diren **elementuak irudikatzen** ditu, hau da, IKT Eredu horren izateko **arrazoia**, azken batean, **Euskal Sektore Publikoaren barruan duen eginkizuna legitimatzen** duena eta horren inguruan **hausnarketa estrategikoa** egiteko beharra eta egokitasuna indartzen duena.

Euskal Sektore Publikoko IKT ereduaren misioa

Euskal Sektore Publikoak teknologiak, tresnak eta IKT metodologia fidagarriak eta konfiantzazkoak dituela bermatu behar du, **herritarrei, eragile pribatuei eta EAEko administrazio publikoei arreta modernoa eta arina** emateko

EAEko IKT ekosistemako eragile guztien esperientzia hobetzeko orientazioa

Euskal Sektore Publikoaren arreta-bokazioa

Arreta eraldaketa digitalean eta modernizazioan jartzea

2.2. | Euskal Sektore Publikoko IKT ereduaren 2024ko ikuspegia

Euskal Sektore Publikoko IKT Ereduaren 2024ko **ikuspegia** da datozen urteetan **lortu nahi den helburua** IKT Ereduaren beraren inguruan, hau da, denbora-muga horren amaieran eredu hori kokatu nahi den **etorkizuneko kontzeptualizazioa eta posizionamendua**.

Euskal Sektore Publikoko IKT ereduaren 2024ko ikuspegia

IKT eredu **antolatua**, elkarlanekoa eta parte-hartzailea izatea, zerbitzuen **iraunkortasuna** eta etengabeko hobekuntza bultzatzeko, benetako beharrekin lerrokatzea bultzatuko duten **irtenbide adimendunen** bidez

antolatua

IKT eredu bat, euskal sektore publikoaren IKTen kudeaketan parte hartzen duten eragileen zeregina arautzen duen **governantza-esparru** batean oinarritua

iraunkortasuna

IKT eredu bat, **baliabideen erabilera eraginkorra** eta eragile guztiei ematen zaizkien zerbitzuen jarraitutasuna bermatuko dituena

irtenbide adimenduak

IKT eredu bat, eskura dagoen **informazioa, datuak eta ebidentziak** ezagutzeko eta ulertzeko aukera ematen duten tresnetan oinarritzen dena

2.3. | Euskal Sektore Publikoko IKT ereduaren balioak

Euskal Sektore Publikoko IKT Ereduaren balioak **funtsezko elementuak dira haien kulturalan, Euskal Sektore Publikoaren jardura** markatuko duten eta haren misioa eta ikuspegia lortzea bideratuko duten **printzipioak eta arauak** baitira.

Kohesioa eta integrazioa



Euskal Sektore Publikoko IKT Ereduan inplikaturako eragileek modu kohesionatuan jardun beharko dute IKT estrategia komun batean.

Berrikuntza



IKT eredia berrikuntzan oinarrituko da, hori baita IKT ekosistemari ematen zaizkion zerbitzuen bilakaerarako ezinbesteko mekanismoa.

Fidagarritasuna eta kaudimena



Etorkizuneko IKT eredia zerbitzu guztien jarduna bermatuko duten teknologia, tresna eta metodologiaren gainean eraiki beharko da.

Esperientzia erabiltzailea



Euskal Sektore Publikoko IKT ereduak harremana duten eragile guztien erabiltzaile-esperientzia optimizatzen saiatu behar du.

Kudeaketa aurreratua



Kudeaketa aurreratuak emaitzarik onenak modu iraunkor eta orekatuan bermatzeko gaitasuna emango dio IKT ereduari.



3. Kapitulua

2021-2024 IKTPEren helburu,
ardatz eta ildo estrategikoak

3.1. | 2021-2024 aldirako IKTPEaren helburu estrategikoak

2021-2024 aldirako IKTPEaren behin betiko formulazioak lehenetasunez erantzun beharko die Euskal sektore publikoko IKT ereduak aurrez aurre dituen helburu estrategikoei.

Euskal sektore publikoaren IKT plangintza gidatzea

2021-2024 aldirako IKTPEk **euskal sektore publikoaren IKTen plangintza egiteko tresna nagusia** izan behar du, eta **etorkizuneko IKTen ereduak garatzeko** oinarriak ezarri behar ditu, bai sektore publikoarenak oro har, bai hura osatzen duten sail, **erakunde autonomo eta erakunde publikoenak**.

IKTak kudeatzeko ereduak antolatzea eta hedatzea

2021-2024 aldirako IKTPEk arreta berezia jarri behar du **euskal sektore publikoan IKTen gobernantza antolatzean**, eta, ildo horretan, IKTen **kudeaketa optimoa ahalbidetuko** duten gobernantza-funtzioen hedapenaren katalizatzaile gisa balio behar du.

IKT soluzioak eta zerbitzuak estandarizatzea

2021-2024 IKTPEaren esparruan egiten den hausnarketaren ondorioz, Euskal Sektore Publikoak garatzen duen jardueraren kalitatea eta etengabeko hobekuntza errazten duten IKT **soluzioak eta zerbitzuak definitu, estandarizatu eta zabaltu** behar dira.

Eraldaketa digitala bultzatzea

2021-2024 IKTPEk euskal sektore publikoko **sailak eta erakundeak modu kohesionatuan modernizatze**ko oinarriak ezarri behar ditu, eta, ildo horretan, teknologia aurreratuak eta haien jardueran **berrikuntza** txertatzeko mekanismo komunak hornitzeari garrantzia eman behar dio.

IKT gaitasunak garatzea eta genero-eten digitala murriztea


Euskal Sektore Publikoaren IKT gaitasunen bilakaerak, arreta berezia jarrita **generoaren eten digitalaren murrizketan**, bai antolaketa-garapenaren ikuspegitik, bai **IKTei lotutako rol berriak garatu eta txertatzearen** ikuspuntutik, estaldura espezifikoak izan behar du 2021-2024 IKTPEren bitartez.

IKTen bidez gizarteari balioa ematea

2021-2024 aldirako IKTPEak, nolahi ere, euskal sektore publikoak, IKTen bidez, gizarte osoari ematen dion **balioa maximizatzer**a bideratuta egon behar du; hau da, **herritarrak, sektore pribatua eta EAEko gainerako administrazio publikoak** aintzat hartuta.

3.2. | 2021-2024 aldirako IKTPEaren ardatz estrategikoak

Euskal sektore publikoaren etorkizuneko IKT ereduaren inguruan egindako hausnarketaren ondorioz, **2021-2024 epealdiko IKTPEk izango dituen ardatz estrategikoak** definitu dira.



Ardatz horiek dira Euskal Sektore Publikoaren **etorkizuneko IKT eredia garatzeko** landuko diren **jarduera-eremu nagusiak**.



1. IKT gobernantza-eredua

Ardatz honek **Euskal Sektore Publikoan IKTen kudeaketa egituratzera eta antolatzerara** bideratutako jardueren multzoa biltzen du, bereziki azpimarratuz **governantza-funtzioen** hedapena eta IKT eredu honetan inplikaturako eragileen koordinazioa maximizatzen duten gobernantza-organoen hedapena.

2. IKT soluzioak eta zerbitzuak

Ardatz honek euskal sektore publikotik eta euskal sektore publikoarentzat ematen **diren IKT soluzio eta zerbitzuen bilakaera** biltzen du, eta arreta berezia jartzen du konponbide eta zerbitzu horien garapenean, konbergentziaren lau eremu nagusien inguruan: azpiegitura, komunikazioak, lanpostua eta zerbitzu korporatiboak.



3. Teknologia aurreratuak eta berrikuntza

Ardatz honek euskal sektore publikoaren jardueran **teknologia aurreratuak** (*big data*, adimen artifiziala, *cloud* teknologia, zibersegurtasuna, blockchain, etab.) txertatzera bideratutako jarduerak biltzen ditu, bai eta IKTen eredian inplikaturako eragile guztiei teknologian oinarritutako **berrikuntza erraztera** bideratutakoak ere.

4. IKTen eta pertsonen antolaketa

Ardatz honek Euskal Sektore Publikoko IKTen kudeaketari lotutako **antolaketa-alderdia** hartzen du barne, eta funtsezko eginkizuna ematen dio **IKT rol berriak sartzeari eta garatzeari**, bai eta **giza baliabideen gaikuntza digitalari** ere, IKTen erabilerari lotutako funtzio edo gaitasun berrietara egokitzeke.



5. IKTen kudeaketa aurreratua

Ardatz honek **kudeaketa aurreratuaren printzipioen asimilazioa barnerratzen du** IKT proiektuen kudeaketan eta garapenean, eta, horretarako, **IKTen ezarpena** eta Euskal Sektore Publikoaren **estandar teknologikoen hedapena** harmonizatzen lagunduko duten metodologia komunak erabiltzea sustatzen du.

3.3. | 2021-2024 aldirako IKTPEaren ildo estrategikoak

Ardatz bakoitzaren inguruko jarduera hainbat **ildo estrategikoren** bidez hedatuko da, eta ildo estrategiko horiek 2021-2024 IKTPEren esparruan gauzatu beharreko **proiektu** guztiak hartuko dituzte barnean.



1. IKT gobernantza-eredua

- 1 Euskal sektore publikoaren IKT gobernantza-funtzioak hedatzea
- 2 IKT gobernantza-organoak hedatzea

2. IKT soluzioak eta zerbitzuak

- 1 Batera Zerbitzuen Katalogoa bultzatzea
- 2 Azpiegitura-esparruko soluzioak eta zerbitzuak garatzea
- 3 Komunikazioen arloko soluzioak eta zerbitzuak garatzea
- 4 Lanpostuaren esparruko soluzioak eta zerbitzuak garatzea
- 5 Zerbitzu korporatiboen esparruko soluzioak eta zerbitzuak garatzea
- 6 Soluzioak eta aplikazioak modernizatzea eta arrazionalizatzea



3. Teknologia aurreratuak eta berrikuntza

- 1 Teknologia aurreratuak sartzea Euskal Sektore Publikoan
- 2 Berrikuntza teknologikoa bultzatzea Euskal Sektore Publikoan

4. IKTen eta pertsonen antolaketa

- 1 IKT rol berriak txertatzea eta garatzea Euskal Sektore Publikoan
- 2 Euskal Sektore Publikoko langileen gaikuntza digitala



5. IKTen kudeaketa aurreratuak

- 1 IKT proiektuak kudeatzeko eta garatzeko metodologiak harmonizatzea
- 2 Euskal Sektore Publikoko estandar teknologikoen hedapena

4. Kapituluia

IKTPEren ekintza-plana 2021-
2024



1. Ardatza | IKT gobernantza-eredua

Ardatz honetan sartutako proiektuek IKTen **governantza-funtzioak** garatzea eta Euskal Sektore Publikoko **IKTen gobernantza-organoak** hedatzea hartzen dute barnean.

Zk.	Proiektua
-----	-----------

Ildo 1.1. Euskal sektore publikoaren IKT gobernantza-funtzioak hedatzea	
--	--

1.1.1.	Zeharkako gobernantza hedatzea
--------	--------------------------------

1.1.2.	Zerbitzuaren gobernantza hedatzea
--------	-----------------------------------

1.1.3.	Arriskuen eta segurtasunaren gobernantza hedatzea
--------	---

Ildo 1.2. IKT gobernantza-organoak hedatzea	
--	--

1.2.1.	IKT Batzorde Estrategikoaren funtzionamendu-eredua hedatzea
--------	---

1.2.2.	Zeharkako IKT gobernantzako organo operatiboak garatzea eta abian jartzea
--------	---



Ildo 1.1. | Euskal sektore publikoaren IKT gobernanta-funtzioak hedatzea

Zk. | Projektua

1.1.1. Zeharkako gobernanta hedatzea

Deskribapena

Zeharkako gobernantzak barne hartzen ditu Euskal Sektore Publikoaren IKT Ereduaren oinarriak ezartzen dituzten funtzio-eremuak, bai eta haren funtzionamendurako jarraibideak eta hura ezartzeko jarraibide globalak ere. Hala, zeharkako gobernantzaren hedapenak, Euskal Sektore Publikoaren IKT gobernanta-ereduaren barruan, honako gobernanta-eremu hauen funtzio zehatzak ezartzea hartzen du barnean:

- Gobernanta estrategikoa
- Datuaren gobernanta
- Finantza gobernanta
- Aldaketaren kudeaketaren gobernanta
- Berrikuntzaren gobernanta

Horretarako, lehenik eta behin, aipatutako gobernanta-eremuetan definitutako funtzio bakoitzari lotutako prozesuak zehaztu beharko dira, bai eta horiek hedatzeaz arduratzen den Euskal Sektore Publikoaren eragile espezifikoak identifikatu ere. Ildo horretan, gobernanta-funtzioekin lotutako adierazleen definizioa eta horiek elikatzeke eredia biltzen ditu proiektuak.

Elementu horiek zehaztu ondoren, zeharkako gobernanta hedatzeko, gobernantzako prozesu eta erantzukizun mugatuak ezartzeko plan bat egin behar da, Euskal Sektore Publikoaren baliabide eta gaitasunak kontuan hartuta, prozesu eta erantzukizun horietako zein har daitezkeen barnean eta zeintzuk hornitu behar diren zehazteko.

Funtsezko jarduerak

- Zeharkako gobernantzaren funtzioei lotutako prozesuak garatzea
- Erantzukizunak esleitzea eta Euskal Sektore Publikoan duten hedapena dimentsionatzea
- Zeharkako gobernanta-funtzioak ezartzeko plan bat egitea

Epea	2021		2022		2023		2024	
	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.
Agente arduraduna	• IKTZ							
Agente laguntzaileak	• IKTen Batzorde Estrategikoa • EJIE • Euskal Sektore Publikoko agenteen IKT arduradunak							
Eragina IKT ereduaren ezarpenean	Altua ● ● ●							
Beharrezko baliabide ekonomikoak	M (ertaina)							
Beharrezko giza-baliabideak	Altua ● ● ●							
Adierazleak	• Garatu diren eta agente arduradunari esleitu zaizkion zeharkako gobernanta-funtzioen %							



Zk. Proiektua

1.1.2. Zerbitzuaren gobernantza hedatzea

Deskribapena

Zerbitzuaren gobernantzak funtzio-eremu guztiak hartzen ditu barnean, Euskal Sektore Publikoko agenteen IKT eskaera identifikatzen denetik hura estaltzen den arte, bai barne-baliabide edo -zerbitzuen bidez, bai kanpo-hornikuntzaren bidez. Horrela, zerbitzuaren gobernantza hedatzeak honako gobernantza-eremu hauetan sartutako funtzioen inplementazioa barne hartzen du:

- Kalitatearen gobernantza
- Eskariaren gobernantza
- IKT irtenbide eta zerbitzuen gobernantza
- Fakturazio-ereduaren gobernantza
- Horniduraren gobernantza

Hala, proiektu hori garatzeko, lehenik eta behin, zehatz-mehatz garatu beharko dira zerbitzuaren gobernantzaren eremuetan definitutako funtzio bakoitzari lotutako prozesuak, eta, horrez gain, Euskal Sektore Publikoaren barruan hura hedatzeaz arduratuko den eragile espezifikoak esleitu beharko da. Era berean, proiektuak gobernantza-funtzioekin lotutako adierazleak definitzen ditu, bai eta horiek elikatzeko ereduak ere.

Elementu horiek zehaztu ondoren, zerbitzuaren gobernantza hedatzeko, gobernantzako prozesu eta erantzukizun mugatuak ezartzeko plan bat egin behar da. Plan horrek identifikatu behar du, Euskal Sektore Publikoaren baliabide eta gaitasunetan oinarrituta, prozesu eta erantzukizun horietatik zeintzuk har daitezkeen barnean eta zeintzuk bete behar diren.

Funtsezko jarduerak

- Zerbitzuaren gobernantza-funtzioei lotutako prozesuak garatzea
- Erantzukizunak esleitzea eta Euskal Sektore Publikoan duten hedapena dimentsionatzea
- Zerbitzuaren gobernantza-funtzioak ezartzeko plan bat egitea

Epea	2021		2022		2023		2024	
	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.
Agente arduraduna	• IKTZ							
Agente laguntzaileak	• IKTen Batzorde Estrategikoa • EJIE • Euskal Sektore Publikoko agenteen IKT arduradunak							
Eragina IKT ereduaren ezarpenean	Altua ● ● ●							
Beharrezko baliabide ekonomikoak	M (ertaina)							
Beharrezko giza-baliabideak	Altua ● ● ●							
Adierazleak	• Garatu diren eta agente arduradunari esleitu zaizkion prozesuak dituzten zerbitzuaren gobernantza-funtzioen %							



Zk. Proiektua

1.1.3. Arriskuen eta segurtasunaren gobernantza hedatzea

Deskribapena

Arriskuen gobernantza eta segurtasuna barne hartzen dituzte euskal sektore publikoko IKT ereduaren funtzionamendu globala beharrezko fidagarritasun- eta kaudimen-estandarren arabera garatzen dela ziurtatzearekin lotutako funtzio-eremuak. Testuinguru horretan, arriskuen gobernantza eta segurtasuna hedatzeak honako gobernantza-eremu hauetan bildutako funtzioak inplementatzea hartzen du barnean:

- Arriskuen gobernantza
- Segurtasunaren gobernantza

Horrela, hedapen horrek, lehenik eta behin, arriskuen gobernantzaren eta segurtasunaren eremuetan definitutako funtzio bakoitzari lotutako prozesuak eta erantzukizunak zehatz-mehatz garatzea eskatuko du. Horrez gain, proiektuak gobernantza-funtzioekin lotutako adierazleak definitzen ditu, bai eta horiek elikatzeke eredu ere.

Azkenik, arriskuen gobernantza eta segurtasuna hedatzeko, identifikatutako eta garatutako gobernantza-prozesuak eta -erantzukizunak ezartzeko plan bat egin behar da. Plan horrek zehaztuko du, Euskal Sektore Publikoaren baliabide eta gaitasunetan oinarrituta, prozesu eta erantzukizun horietatik zeintzuk har daitezkeen barnean eta zeintzuk bete behar diren.

Funtsezko jarduerak

- Arriskuen eta segurtasunaren gobernantza-funtzioekin lotutako prozesuak garatzea
- Erantzukizunak esleitzea eta Euskal Sektore Publikoan duten hedapena dimentsionatzea
- Arriskuen eta segurtasunaren gobernantza-funtzioak ezartzeko plan bat egitea

Epea	2021		2022		2023		2024	
	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.
Agente arduraduna	<ul style="list-style-type: none"> • IKTZ 							
Agente laguntzaileak	<ul style="list-style-type: none"> • IKTen Batzorde Estrategikoa • GureSek • EJIE • Euskal Sektore Publikoko agenteen IKT arduradunak 							
Eragina IKT ereduaren ezarpenean	Altua ● ● ●							
Beharrezko baliabide ekonomikoak	S (baxua)							
Beharrezko giza-baliabideak	Altua ● ● ●							
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Garatu diren eta agente arduradunari esleitu zaizkion arriskuen eta segurtasunaren gobernantza-funtzioen % 							



Ildo 1.2. | IKT gobernantza-organoak bultzatzea

Zk. | Projektua

1.2.1. IKT Batzorde Estrategikoaren funtzionamendu-eredua hedatzea

Deskribapena

Proiektu honek berekin dakar IKTen Batzorde Estrategikoaren (IKTBE) funtzionamendu-eredua aztertzea, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko IKTen kudeaketa-eredua arautzen duen 36/2020 Dekretuan oinarrituta, haren bidez lortu nahi diren helburuak betetzea sustatuko duten jardura estrategikoak eta operatiboak identifikatzeko.

Horrela, proiektu honek partaidetzazko azterketa-prozesu bat egin beharko du, IKTen Batzorde Estrategikoa osatzen duten eragileak inplikatu dituen eta hobekuntza-jarduerak identifikatzen arreta jarriko duena, batez ere honako eremu hauen inguruan:

- Rolak asimilatzea: IKTen Batzorde Estrategikoko kide bakoitzarentzat definitutako rolak, funtzioak eta erantzukizunak asimilatzea bideratutako jarduerak.
- Komunikazio errepikaria: IKTen Batzorde Estrategikoa osatzen duten eragileen arteko komunikazioa sustatzeko jarduerak (bai organoaren bileren esparruan, bai bilera horien testuingurutik kanpo gertatzen den komunikazioan), organoan parte hartzeagatik esleituta dituzten funtzioak direla eta.

Azkenik, beharrezkoa izanez gero, 36/2020 Dekretuan zehatz-mehatz jaso beharko dira prozesu horren ondorioz sortzen diren aldaketak edo berrikuntzak.

Funtsezko jarduerak

- IKTBEn funtzionamendu-ereduaren azterketa, 36/2020 Dekretuan oinarrituta
- Rolak, funtzioak eta erantzukizunak bereganatzea sustatuko duten jardunak identifikatzea.
- Hala badagokio, 36/2020 Dekretuan aldaketak edo berrikuntzak sartzea

	2021		2022		2023		2024	
Epea	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.
Agente arduraduna	<ul style="list-style-type: none">• IKTen Batzorde Estrategikoa							
Agente laguntzaileak	<ul style="list-style-type: none">• IKTZ• EJIE• Euskal Sektore Publikoko Sareak, Sailak eta Erakundeak							
Eragina IKT ereduaren ezarpenean	Altua ● ● ●							
Beharrezko baliabide ekonomikoak	XS (oso baxua)							
Beharrezko giza-baliabideak	Baxua ● ● ●							
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none">• IKTen Batzorde Estrategikoaren funtzionamendu-ereduaren inguruan inplementatutako hobekuntza-jarduketaren ehunekoa, identifikatutako hobekuntza-jarduketa guztiei dagokienez							



Zk. Proiektua

1.2.2. IKT gobernanzako organo operatiboak garatzea

Deskribapena

IKTen gobernanzarako organo operatiboak koordinazio-foro gisa sortzen dira, honako hauen artean: IKTZ, IKTen administrazio-organoa gisa; EJIE, IKTen kudeaketa-organoa gisa; eta Euskal Sektore Publikoko Sareak, Sailak eta Erakundeak, IKTen konponbideen eta zerbitzuen bezero edo hartzaile gisa. Horrela, organo horiek garatzea, lehenik eta behin, dauden organoak (AKLZ batzordea eta GureSeK batzordea) diagnostikatzea eta hobetzeko alderdiak zehaztea dakar, organo horietako kide bakoitzari esleitutako eginkizunak hobeto bereganatzea ekarriko duten jardunak identifikatzeko.

Horrez gain, proiektuak Euskal Sektore Publikoan eratu beharreko IKT gobernanzako organo operatibo berriak zehazten ditu. Horiek etorkizuneko IKT ereduaren funtsezko eremuekin lerrotuta egon beharko dute, organo horiek eredu horren garapenari egiten dioten ekarpen zuzena ikusarazteko. Ondoren, organo horien funtzionamendu-araubidea garatu beharko da, eta IKTBEEK onartu beharko du, edo, bestela, Gobernu Kontseiluaren akordio bidez, dagokionaren arabera.

Funtsezko jarduerak

- Dauden IKT gobernanzako organo operatiboen diagnostikoa
- Hobekuntza-jarduerak identifikatzea IKT gobernanzako organo operatiboen inguruan
- Euskal sektore publikoko IKT gobernanzako organo operatibo berriak zehaztea
- IKT gobernanzako organo operatibo berrien funtzionamendu-araubidea onartzea

	2021		2022		2023		2024	
Epea	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.
Agente arduraduna	<ul style="list-style-type: none">• IKTZ							
Agente laguntzaileak	<ul style="list-style-type: none">• AKLZ batzordea• GureSeK• EJIE• Euskal Sektore Publikoko Sareak, Sailak eta Erakundeak							
Eragina IKT ereduaren ezarpenean	Altua ●●●							
Beharrezko baliabide ekonomikoak	S (baxua)							
Beharrezko giza-baliabideak	Baxua ●●●							
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none">• IKTen gobernanzarako organo operatiboen inguruan implementatutako hobekuntza-jarduketan ehunekoa, identifikatutako jarduketan guztiei dagokienez• Eratatutako IKT gobernanzako organo operatiboen ehunekoa, zehaztutako organo guztiei dagokienez							



2. Ardatza | IKT soluzioak eta zerbitzuak

Ardatz honetan sartutako proiektuek arreta berezia jartzen dute **lau konbergentzia-eremuetan** kokatutako **soluzioen eta zerbitzuen garapenean**.

Zk.	Proiektua
Ildo 2.1. Batera Zerbitzuen Katalogoa bultzatzea	
2.1.1.	Batera Zerbitzuen Katalogoa formalizatzea eta haren kudeaketa- eta jarraipen-eredua definitzea
2.1.2.	Batera Zerbitzuen katalogoari lotutako hornidura-proiektuak diseinatzea eta gauzatzea
2.1.3.	Batera Zerbitzuen Katalogoari lotutako konbergentzia-proiektuen plana diseinatzea eta gauzatzea
2.1.4.	Batera Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen erabiltzaile-esperientzia baloratzeko sistematika bat ezartzea
2.1.5.	EJIEren IKT Zerbitzuen Katalogoa eguneratzea eta zabaltzea
Ildo 2.2. Azpiegituraren eremuko konponbideak eta zerbitzuak garatzea	
2.2.1.	Euskal Sektore Publikoko edukiontzien hedapena eta sustapena
2.2.2.	Eusko Jaurlaritzaren Cloud estrategia bultzatzea
Ildo 2.3. Komunikazioen eremuko konponbideak eta zerbitzuak garatzea	
2.3.1.	Komunikazioen segurtasuna indartzea
Ildo 2.4. Lanpostuaren eremuko konponbideak eta zerbitzuak garatzea	
2.4.1.	Euskal Sektore Publikoko IKTen ELZ/CAUak modernizatzea
2.4.2.	Erabiltzaile-postuaren kudeaketa (mugikortasuna)
Ildo 2.5. Zerbitzu korporatiboaren eremuko konponbideak eta zerbitzuak garatzea	
2.5.1.	Adimen artifizialeko plataforma bat garatzea
2.5.2.	Blockchain plataforma bat garatzea
2.5.3.	Identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoko plataforma garatzea
Ildo 2.6. Soluzioak eta aplikazioak modernizatzea eta arrazionalizatzea	
2.6.1.	Beste erakunde batzuetara transferitu daitezkeen Euskal Sektore Publikoko soluzioen erregistroa definitzea eta mantentzea
2.6.2.	Euskal Sektore Publikoko aplikazioen erregistroa definitzea eta mantentzea
2.6.3.	Euskal Sektore Publikoko aplikazio kritikoak modernizatzeko eta arrazionalizatzeko estrategia definitzea



Ildo 2.1. | Batera Zerbitzuen Katalogoa bultzatzea

Zk. Proiektua

2.1.1. Batera Zerbitzuen Katalogoa formalizatzea eta haren kudeaketa- eta jarraipen-eredua definitzea

Deskribapena

Euskal Sektore Publikoa murgilduta dagoen konbergentzia-prozesua kontuan hartuta, funtsezkotzat jotzen da zerbitzu konbergente bakoitza xehetasunez definitzea, eta zerbitzu bakoitzaren irismena, ordutegi-erabilgarritasuna eta haren arduraduna zehaztea, besteak beste; eta Batera Zerbitzuen Katalogoa formalizatzea, onartu eta zabaldu ahal izateko, euskal sektore publikoko eragile guztiek horren berri izan dezaten.

Batera Zerbitzuen Katalogoa onartu eta hedatu ondoren, Katalogoko zerbitzuei lotutako prozesuak normalizatzeko, estandarizatzeko eta etengabe hobetzeko metodologia bat ezartzeko lan egin beharko da. Metodologia horrek fitxen definizioa, Kalitate Plana eta zerbitzu bakoitzari lotutako Zerbitzu-mailako Akordioak (ZMA) jaso beharko ditu. Azkenik, ziurtatu nahi diren katalogoko zerbitzuen UNE arauaren arabera ziurtapena lantzeko ibilbide-orri bat egiten jarraitu beharko da.

Funtsezko jarduerak

- Zerbitzu bakoitzaren deskribapen zehatza eta Batera Zerbitzuen Katalogoaren onarpena
- Batera Zerbitzuen Katalogoa onartzea eta zabaltzea
- Zerbitzuak normalizatzeko, estandarizatzeko eta etengabe hobetzeko metodologia ezartzea
- Katalogoan jasotako zerbitzuak UNE arauaren arabera ziurtatzeko ibilbide-orria egitea eta ezartzea, ziurtatzeko interesgarritzat jotzen direnean

Epea	2021		2022		2023		2024	
	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.
Agente arduraduna	<ul style="list-style-type: none">• IKTen Batzorde Estrategikoa							
Agente laguntzaileak	<ul style="list-style-type: none">• IKTZ• EJIE• Euskal Sektore Publikoko agenteen IKT arduradunak							
Eragina IKT ereduaren ezarpenean	Altua ● ● ●							
Beharrezko baliabide ekonomikoak	L (altua)							
Beharrezko giza-baliabideak	Baxua ● ● ●							
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none">• Definitutako normalizazio eta etengabeko hobekuntzako metodologia duten IKT zerbitzu normalizatuaren ehunekoa, Batera Zerbitzuen Katalogoan sartutako zerbitzu guztiei							



Zk. Proiektua

2.1.2. Batera Zerbitzuen katalogoari lotutako hornidura-proiektuak diseinatzea eta gauzatzea

Deskribapena

Batera Zerbitzuen Katalogoaren eguneraketan oinarrituta, beharrezkoa da zenbait hornidura-proiektu egitea, EJI Eri, IKTak kudeatzen dituen organoa den aldetik, euskal sektore publikoko eragileei zerbitzu definituak eskaintzeko gaitasuna emateko, bai jada konbergentziarekin bat egin dezaketenei, bai konbergentziarekin bat egin dezaketenei.

Hala, Batera Zerbitzuen Katalogoan sartutako zerbitzu berriak aztertu beharko dira, hornidura-beharrak identifikatzeko eta EJI Eri datozen urteetan haiei erantzuteko gauzatu eta ezarri beharko dituen proiektuak konfiguratzeko. Ildo horretan, Katalogoan sartutako zerbitzuak kontuan hartuta, honako hornidura-proiektu hauek ezartzeko interesa azpimarra daiteke:

- Urruneko konexio segurua (VPN) hornitzeko proiektua
- Proiektua: Blockchain plataforma hornitzea
- Adimen artifizialeko eta automatizazioko plataforma hornitzeko proiektua
- Proiektua: Segurtasun Eragiketen Zentroa hornitzea

Funtsezko jarduerak

- Batera Zerbitzuen Katalogoan sartutako zerbitzu berrien azterketa
- Zerbitzu berriak eskaini ahal izateko estali beharreko premiak identifikatzea
- EJI Eri egin beharreko hornidura-proiektuak definitzea
- Hornidura-proiektuak gauzatzea

Epea	2021		2022		2023		2024		
	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	
Agente arduraduna									
Agente laguntzaileak									
Eragina IKT ereduaren ezarpenean									
Beharrezko baliabide ekonomikoak									
Beharrezko giza-baliabideak									
Adierazleak									



Zk. Proiektua

2.1.3. Batera Zerbitzuen Katalogoari lotutako konbergentzia-proiektuen plana diseinatzea eta gauzatzea

Deskribapena

Batera Zerbitzuen Katalogoa egitearen ondorioz, zerbitzu horiek jasotzen dituzten euskal sektore publikoko eragileek konbergentzia-proiektu batzuk egin beharko dituzte zerbitzu horiek kontsumitu ahal izateko.

Proiektu horiek erakunde bakoitzak konbergentzia-prozesuan gaur egun duen egoeraren arabera aldatuko dira, eta konbergentzia-prozesuari ekin dioten erakundeek ez dute konbergentzia-proiektu jakin batzuk egiteko beharrik izango, zerbitzu jakin batzuk kontsumitzeko gaitasuna izango baitute. Hala, Batera Zerbitzuen Katalogoan sartutako zerbitzu berrietan oinarrituta, eragileek honako bateratze-proiektu hauek ezartzeko interesa dutela azpimarra daiteke:

- Hosting
- VoIP
- VPN
- Bideokonferentzia
- WorkPlace
- Informatikako lanpostua
- Inprimatzea
- Elkarlan
- SEZ/SOC
- Big Data
- Adimen artifiziala
- Blockchain

Funtsezko jarduerak

- Euskal Sektore Publikoko eragileek kontsumitu beharreko zerbitzu berrien azterketa
- Agenteek zerbitzu horiek kontsumitzeko dituzten beharrak identifikatzea
- Eragileek egin beharreko konbergentzia-proiektuak definitzea
- Eragileek egin beharreko konbergentzia-proiektuak gauzatzea

Epea	2021		2022		2023		2024	
	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.

Agente arduraduna • Euskal Sektore Publikoko agenteen IKT arduradunak

Agente laguntzaileak • IKTZ
• EJIE

Eragina IKT ereduaren ezarpenean Altua ● ● ●

Beharrezko baliabide ekonomikoak <ez da aplikagarria>

Beharrezko giza-baliabideak Ertaina ● ● ●

Adierazleak • Arrakastaz amaitutako konbergentzia-proiektuen ehunekoa, planifikatutako konbergentzia-proiektuei dagokienez



Zk. Proiektua

2.1.4. Batera Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen erabiltzaile-esperientzia baloratzeko sistematika bat ezartzea

Deskribapena

IKT zerbitzuak jasotzen dituzten euskal sektore publikoko eragile guztien erabiltzaile-esperientzia optimizatzea da ezarri beharreko etorkizuneko IKT ereduak izan beharko duen balioetako bat.

Gehieneko horri erantzuteko, Euskal Sektore Publikoak sistematika bat garatu eta inplementatu beharko du IKT zerbitzuak jasotzen dituzten agenteen erabiltzaile-esperientzia aztertzeke eta baloratzeko. Sistematika hori Euskal Sektore Publikoko erabiltzaile-esperientziaren ezaugarri izango diren erabilgarritasun-, fidagarritasun- eta auresangarritasun-estandarren definizioan oinarritu beharko da.

Sistematika horri esker, IKT zerbitzuen heldutasun-maila handitu ahal izango da, baita zerbitzuen etengabeko hobekuntza-maila ere, eta, are gehiago, zerbitzuak egokitu ahal izango dira haien euskarri diren teknologiak eta Euskal Sektore Publikoa osatzen duten eragileen erabiltzaile-esperientziaren beharrak aldatu ahala.

Funtsezko jarduerak

- Euskal Sektore Publikoko erabiltzailearen esperientzia-estandarrik definitzea (erabilgarritasuna, fidagarritasuna eta auresangarritasuna)
- Erabiltzailearen esperientzia neurtzeko adierazleak definitzea
- Batera Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuei buruzko adierazleak ezartzea
- Adierazleen jarraipena eta etengabeko hobekuntza

Epea	2021		2022		2023		2024	
	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.
Agente arduraduna			• EJIE					
Agente laguntzaileak			• IKTZ				• Euskal Sektore Publikoko agenteen IKT arduradunak	
Eragina IKT ereduaren ezarpenean			Ertaina ● ● ●					
Beharrezko baliabide ekonomikoak			S (baxua)					
Beharrezko giza-baliabideak			Ertaina ● ● ●					
Adierazleak			• Batera Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen erabiltzaileen batez besteko asebetetze-maila					



Zk. Proiektua

2.1.5. EJIEn IKT Zerbitzuen Katalogoa eguneratzea eta zabaltzea

Deskribapena

EJIEn IKT Zerbitzuen Katalogoak IKTak kudeatzen dituen organoak euskal sektore publikoko eragile guztiei ematen dizkien IKT zerbitzuak biltzen ditu, bi ikuspegitatik:

Rol horiek sartzeko edo garatzeko, Sektore Publikoak jakin beharko du zer alde dagoen daukan gaitasunen eta behar diren gaitasunen artean, arriskuen eta segurtasunaren gobernantza-funtzioak hedatzeko. *gap* hori identifikatu ondoren, estali gabeko arriskuen eta segurtasunaren gobernantza-funtzioak garatzeko aukera emango duten rolak gehitzeko edo garatzeko plangintza egin eta gauzatu beharko da.

Funtsezko jarduerak

- Arriskuen eta segurtasunaren gobernantza-funtzioak garatzeko egungo eta eskatutako gaitasunen *gap* azterketa
- Estali gabeko arriskuen eta segurtasunaren gobernantza-funtzioak garatzea ahalbidetzen duten rolak txertatzeko edo garatzeko plangintza

Epea	2021		2022		2023		2024	
	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.
Agente arduraduna								
Agente laguntzaileak								
Eragina IKT ereduaren ezarpenean								
Beharrezko baliabide ekonomikoak								
Beharrezko giza-baliabideak								
Adierazleak								



Ildo 4.2. | Euskal Sektore Publikoko langileen gaikuntza digitala

Zk. | Projektua

4.2.1. EAEko Sektore Publikoko IKT prestakuntza-eredua garatzea

Deskribapena

IKTen prestakuntza-ereduak euskal sektore publikoko langileen gaikuntza digitala bultzatzeko elementu nagusi gisa balio behar du, arlo horretan dituzten eskumenak osatzeko beharrezkoak diren alderdiak zehaztuta.

Horrela, IKTen prestakuntza-eredua, lehenik eta behin, Euskal Sektore Publikoko langileen IKTen konpetentzia-profilen zehaztapenean oinarritu beharko da, IKTei dagokienez zehazten diren lanpostu-tipologiaren arabera (adibidez, Euskal Sektore Publikoko langileen profil generiko bat; eta IKTen arloan eginkizun espezifikoak dituzten langileen profil bat).

Ariketa horrekin batera, IKT gaitasunen autoebaluazio-sistematika bat garatu beharko da, euskal sektore publikoko pertsona bakoitzak bere profilari dagokionez duen konpetentzia-maila identifikatu ahal izateko. Era berean, eredu horrek barnean hartu beharko du IKT gaitasun-profil bakoitzari lotutako prestakuntza-ibilbideen definizioa, horiek langileen eskura jar daitezten, IKT konpetentzien autoebaluazioaren emaitzaren arabera. Azkenik, irizpide homogeenak definitu beharko dira EAEko sektore publikoko eragileei IKTKo prestakuntza-orduak emateko, eta lehentasunez baloratu beharko dute generoaren araberrako arrakala digitala murriztea.

Funtsezko jarduerak

- Euskal sektore publikoko langileen IKT gaitasun-profilak definitzea
- IKT gaitasunen autoebaluazio-sistematika bat garatzea
- IKT gaitasun-profil bakoitzari lotutako prestakuntza-ibilbideak definitzea
- IKTen prestakuntza-orduak emateko irizpide homogeenak definitzea, genero-arrakala digitala murriztea lehentasunez baloratuko dutenak

	2021		2022		2023		2024	
Epea	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.
Agente arduraduna	• IKTZ							
Agente laguntzaileak	• IVAP • EJIE							
Eragina IKT ereduaren ezarpenean	Altua ● ● ●							
Beharrezko baliabide ekonomikoak	M (ertaina)							
Beharrezko giza-baliabideak	Ertaina ● ● ●							
Adierazleak	• IKTen autoebaluazioa erabiltzen duten langileen % • IKT prestakuntza jasotzen duten langileen %							



Zk. Proiektua

4.2.2. E-learning tresna informatikoak zaintzeko eta eguneratzeko sistematika definitzea

Deskribapena

Digitalizazioa eta telelanaren presentzia gero eta handiagoa den testuinguruan, IKTen arloko prestakuntza joera horien arabera garatzeko gai izan behar da, eta euskal sektore publikoko langileen eskura jarri behar da urrutiko prestakuntza emateko. Ildo horretan, e-learning tresnek funtsezko zeregina dute ikasleen esperientzia optimizatze eta urrutiko prestakuntza emateko modalitatean gaitasunak benetan eskuratzeko.

Esparru horretan, proiektu honek, lehenik eta behin, merkatuan eskuragarri dauden e-learning tresnak aldi behin identifikatzeko sistematika bat garatzea hartzen du barne, eta sistematika horrekin batera, prestakuntza-prestazioan zer tresna sartu nahi diren zehazteko irizpide batzuk definitu behar dira.

Era berean, euskal sektore publikoak erabiltzen dituen e-learning tresnak ebaluatzeko ereduaren definizioa jaso behar du proiektu honek, tresna horiek aldizka berrikusteko oinarri gisa balio dezan, tresna horiek mantendu edo baztertzeko.

Funtsezko jarduerak

- E-learning tresnak aldi behin identifikatzeko sistematika bat definitzea
- E-learning tresna berriak sartzeko irizpideak definitzea
- E-learning tresnak ebaluatzeko eredia definitzea, horiek mantentzeko edo baztertzeko

	2021		2022		2023		2024	
Epea	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.
Agente arduraduna			• IVAP					
Agente laguntzaileak			• EJIE					
Eragina IKT ereduaren ezarpenean			Baxua ● ● ●					
Beharrezko baliabide ekonomikoak			XS (oso baxua)					
Beharrezko giza-baliabideak			Baxua ● ● ●					
Adierazleak			• Sartutako e-learning tresnen ehunekoa, horiek txertatzeko planifikatutako tresnei dagokienez					



5. Ardatza | IKTen kudeaketa aurreratua

Ardatz honetako proiektuek **IKT proiektuak kudeatzeko eta garatzeko metodologiaren harmonizazioa** eta Euskal Sektorre Publikoko **estandar teknologikoen hedapena** jorratzen dituzte.

Zk.	Proiektua
Ildo 5.1. IKT proiektuak kudeatzeko eta garatzeko metodologiak harmonizatzea	
5.1.1.	Euskal sektore publikoan IKT proiektuak kudeatzeko ARINbide metodologia hedatzea
5.1.2.	<i>Agile</i> metodologiaren ezarpena bultzatzea eta Euskal Sektorre Publikoan lan egiteko modu azkarrak landu
5.1.3.	DevOps-ak esponsorizatzea eta sustatzea Euskal Sektorre Publikoan
5.1.4.	Proiektu teknologikoen berri emateko eta jarraipena egiteko sistematika eta tresna komunak definitzea
Ildo 5.2. Euskal Sektorre Publikoko teknologia-estandarren hedapena	
5.2.1.	Euskal sektore publikoko IKT arkitekturaren bilakaera eta modernizazioa
5.2.2.	Kalitatea kudeatzeko metodologiak bultzatzea eta hedatzea Euskal Sektorre Publikoan
5.2.3.	Aktibo digitalen <i>marketplace</i> baten sorrera aztertzea



Ildo 5.1.

IKT proiektuak kudeatzeko eta garatzeko metodologiak harmonizatzea

Zk. Proiektua

5.1.1. Euskal sektore publikoan IKT proiektuak kudeatzeko ARINbide metodologia hedatzea

Deskribapena

Euskal Sektore Publikoak, estandar teknologikoen artean, ARINbide metodologia dauka, informazio-sistemak garatzeko eta mantentzeko metodologia propioa, baita proiektuak kudeatzeko metodologia ere. Metodologia hori, iragarpen-eremuan, Métrica v.3 delakoan oinarritzen da; eta egokitzapen-eremuan, Scrum eta Extreme Programming (XP) konbinazioan. Ildo horretan, metodologia honek bizi-ziklo bizkor, iteratibo eta inkrementala jarraitzen du, software-proiektuen bizi-zikloko jarduerak sistematizatuz eta estandarizatuz, baita lortu beharreko azken produktuak osatzen dituzten elementuak ezartzea ere (iturburu-kodea, exekutagarriak, dokumentazioa, etab.).

Horrela, proiektu honek metodologia hori euskal sektore publikoko eragileen artean hedatzeko jarduerak barne hartzen ditu. Horretarako, lehenik eta behin diagnostiko bat egin beharko da, gaur egun ARINbide metodologiak duen inplementazio- eta erabilera-maila ezagutzeko. Ondoren, eta ARINbide metodologia hedatzeko ekintzak gauzatze aldera, Euskal Sektore Publikoko eragileak sailkatu beharko dira, ARINbide metodologiaren idiosinkrasiaren edo ezagutza-mailaren arabera, honako helburu hauekin:

- Metodologiaren hedapena planifikatzea, komunikazio-jarduerak lehentasunezko eragileengan fokalizatuz
- Eragile bakoitzarekin erabili beharreko komunikazio- eta hedapen-ekintza espezifikoak zehaztea

Funtsezko jarduerak

- Euskal Sektore Publikoko eragileek ARINbide metodologia zenbateraino ezarri eta erabili duten diagnostikatzea
- Euskal sektore publikoko eragileak sailkatzea, haien idiosinkrasiaren edo ARINBIDE metodologiaren erabileraren arabera
- ARINbide metodologiaren hedapena planifikatzea
- Eragile bakoitzarekin erabili beharreko komunikazio- eta hedapen-ekintza espezifikoak zehaztea eta gauzatzea

Epea	2021		2022		2023		2024	
	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.
Agente arduraduna			•	IKTZ				
Agente laguntzaileak			•	EJIE				
Eragina IKT ereduaren ezarpenean			Ertaina	● ● ●				
Beharrezko baliabide ekonomikoak			XS	(oso baxua)				
Beharrezko giza-baliabideak			Baxua	● ● ●				
Adierazleak			•	ARINbide metodologia erabiltzen duten eragileen %				



Zk. Proiektua

5.1.2. Agile metodologiaren ezarpena bultzatzea eta Euskal Sektore Publikoan lan egiteko modu azkarrak landu

Deskribapena

Agile metodologia IKT proiektuak kudeatzeko metodo bat da, normalean softwarea garatzeko, eta garapen iteratiboaren ideian oinarritzen da, eta baldintzak eta konponbideak funtzio anitzeko talde autoantolatuen arteko lankidetzaren bidez bilakatzen dira. Garapen arinaren azken balioa da ekipoei aukera ematen diela balioa azkarrago emateko, kalitate eta aurreikusgarritasun handiagoarekin eta aldaketari erantzuteko gaitasun handiagoarekin.

Alde horretatik, proiektu honen ardatza da Agile metodologia ezartzeko kultura bultzatzea Euskal Sektore Publikoan, eragileek lan egiteko modu arinak gara ditzaten, batez ere egiten dituzten proiektu teknologikoen esparruan. Horretarako, lehenik eta behin, Euskal Sektore Publikoko eragileek Agile metodologia ezartzeko oinarriak zehaztu beharko dira. Horretarako, interesgarritzat jotzen da EJIEn dagoen Agile ereduaren oinarritzat hartzea.

Ondoren, ibilbide-orri bat zehaztu beharko da Agile Euskal Sektore Publikoko eragileetan pixkanaka ezartzeko, ezarpen horri lehentasuna emateko eragile horiek eremu horretan duten heldutasuna eta Agile metodologiak beren jardueran duen eragina kontuan hartuta. Ibilbide-orri hau ezartzeko, bereziki interesgarria izango da eragileei metodologia hau ezartzeko bidean lagunduko dien Agile bulego bat eratzea.

Funtsezko jarduerak

- Euskal sektore publikoko eragileek Agile metodologia ezartzeko oinarriak definitzea
- Euskal Sektore Publikoko eragileetan Agile pixkanaka ezartzeko ibilbide-orri bat definitzea eta gauzatzea
- Agileko adopzio-bidean agenteei lagunduko dien Agile bulego bat eratzea

	2021	2022	2023	2024
Epea	1. Sei hil. 2. Sei hil.	1. Sei hil. 2. Sei hil.	1. Sei hil. 2. Sei hil.	1. Sei hil. 2. Sei hil.
Agente arduraduna		• IKTZ		
Agente laguntzaileak		• EJIE • Euskal Sektore Publikoko agenteen IKT arduradunak		
Eragina IKT ereduaren ezarpenean		Ertaina ● ● ●		
Beharrezko baliabide ekonomikoak		XS (oso baxua)		
Beharrezko giza-baliabideak		Baxua ● ● ●		
Adierazleak		• Agile metodologia erabiltzen duten eragileen %		



Zk. Proiektua

5.1.3. DevOps-ak esponsorizatzea eta sustatzea Euskal Sektore Publikoan

Deskribapena

DevOps (garapena eta eragiketak) softwarea ekoizpenean jartzeko ikuspegia da, garapen-ekipoak eta IKTen arloko beste alderdi interesdun batzuk biltzen dituen kulturaren oinarritua, entrega-helburu azkarragoa lortzeko. Ikuspegi horren erabilera honetan datza: IKTen eremuan inplikaturako taldeen komunikazioa eta koordinazioa hobetzea; garapenen segurtasun eta eskalagarritasun handiagoa; eta horien produktibitatea eta errentagarritasuna handitzea.

Horrela, bada, Euskal Sektore Publikoan DevOps-en esponsorizazioa eta sustapena, lehenik eta behin, IKTen eremuan parte hartzen duen eragile bakoitzari zuzendutako hedapen-ekintzen bidez bideratu beharko da, ikuspegi horren inguruko ezagutza-mailara eta ikuspegi horrek eragile bakoitzaren jardueran duen kritikotasun-mailara egokitzeko. Horrez gain, Euskal Sektore Publikoan DevOps ikuspegia erabiltzera bideratutako prestakuntza-ikastaroak diseinatu eta eman beharko dira.

Bestalde, DevOps Eusko Jaurlaritzaren estandar teknologikoetan sartzearen egokitasuna baloratu beharko da, neurri horrek haren erabilera sustatzeko izan lezakeen inpaktua dela eta. Era berean, Euskal Sektore Publikoan DevOps ikuspegiaren hedapena koordinatzeaz arduratuko den organo edo zerbitzu zentralizatu bat abian jartzeko interesa baloratu beharko da.

Funtsezko jarduerak

- DevOps ikuspegia sustatzeko hedapen-ekintzak diseinatzea
- DevOps ikuspegia erabiltzera bideratutako prestakuntza-ikastaroak diseinatzea eta ematea
- Eusko Jaurlaritzaren estandar teknologikoetan DevOps sartzearen egokitasunaren balorazioa
- DevOps ikuspegiaren hedapena koordinatzeaz arduratuko den organo edo zerbitzu zentralizatu bat abian jartzeko interesa baloratzea

Epea	2021		2022		2023		2024	
	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.
Agente arduraduna			• IKTZ					
Agente laguntzaileak			• EJIE				• Euskal Sektore Publikoko agenteen IKT arduradunak	
Eragina IKT ereduaren ezarpenean			Ertaina ● ● ●					
Beharrezko baliabide ekonomikoak			XS (oso baxua)					
Beharrezko giza-baliabideak			Baxua ● ● ●					
Adierazleak			• DevOps erabiltzen duten eragileen %					



Zk. Proiektua

5.1.4. Proiektu teknologikoen berri emateko eta jarraipena egiteko sistematika eta tresna komunak definitzea

Deskribapena

Proiektu teknologikoen berri emateko eta jarraipena egiteko sistematika eta tresna komunak definitzea proiektu horien koordinazioa sustatzera bideratuta dago, bi ikuspegitatik:

- Proiektu teknologikoen barne-ikuspegia: proiektuaren txostenari eta jarraipenari buruzko erantzukizuna behar bezala esleituta eta adostuta dagoela ziurtatzea; eta arduradunak plangintza-, txosten- eta jarraipen-jardunbide egokiak erabiliko dituela ziurtatzea.
- Proiektu teknologikoen ikuspegi orokorra: proiektu teknologiko guztien egoerari buruzko informazioa zentralizatzea, estrategiak lerrokatze eta Euskal Sektore Publikoko eragileen arteko sinergiak identifikatzeko.

Helburu horiek lortzen laguntzeko, lehenik eta behin, lan-metodologia komun bat definitu beharko da Euskal Sektore Publikoko proiektu teknologikoen berri emateko eta jarraipena egiteko. Metodologia horrek proiektu horien berri emateko eredua, esparru horretan hartu beharreko erantzukizunak eta horiek esleitzeko irizpideak aurreikusi beharko ditu. Ildo horretan, proiektuen berri emateko eta jarraipena egiteko tresna komun bat hautatu beharko da, Euskal Sektore Publikoko eragileetan inplementatu beharko dena, eta horren inguruan prestatu beharko dira proiektuen kudeaketaren arduradun potentzialak.

Funtsezko jarduerak

- Lan-metodologia komun bat definitzea proiektuen berri emateko eta jarraipena egiteko: txosten-eredua, erantzukizunak eta esleitzeko irizpideak
- Proiektuen jarraipena egiteko tresna komun bat hautatzea eta ezartzea
- Proiektuen kudeaketaren arduradun potentzialen prestakuntza proiektuen berri emateko eta jarraipena egiteko tresnaren inguruan

Epea	2021		2022		2023		2024	
	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.
Agente arduraduna								
Agente laguntzaileak								
Eragina IKT ereduaren ezarpenean								
Beharrezko baliabide ekonomikoak								
Beharrezko giza-baliabideak								
Adierazleak								



Ildo 5.2.

Euskal Sektore Publikoko teknologia-estandarren hedapena

Zk. Proiektua

5.2.1. Euskal sektore publikoko IKT arkitekturaren bilakaera eta modernizazioa

Deskribapena

Euskal Sektore Publikoak une oro bere aplikazioekin eta arkitekturekin lotutako zaharkitze-arriskuak murriztearen alde egin behar du, eskalagarritasuna, mantentzea eta funtzionalitateak txertatzea erraztuz. Ildo horretan, sortzen ari diren teknologietan eraikitako IKT arkitektura komun bateranzko bilakaera da aukera egokiena helburu horiek modu homogeenan lortzeko administrazioko eragile guztien artean.

Horrela, bilakaera hori gauzatze aldera, beharrezkoa izango da, lehenik eta behin, gogoeta-prozesu bat egitea helburuko IKT arkitektura definitzeko, bai eta arkitektura hori ezartzeko estrategia definitzea ere; besteak beste, arkitektura berriaren eskakizunei erantzuniko dieten API tresnak eta teknologiak identifikatzea, IKT arkitektura berriaren gobernu-eredua definitzea, edo arkitektura kudeatzeko prozesu operatiboak garatzea. Horrez gain, IKT arkitektura berrian sar daitezkeen prozesatze-elementuak denbora errealean aztertzearen egokitasuna baloratu beharko da.

Funtsezko jarduerak

- Euskal sektore publikoaren helburu den IKT arkitektura definitzea
- IKT arkitektura berria ezartzeko estrategia definitzea eta gauzatzea:
 - API tresnak eta teknologiak identifikatzea
 - IKT arkitekturaren gobernu-eredua definitzea
 - IKT arkitektura kudeatzeko prozesu operatiboak garatzea
- IKT arkitekturaren sar daitezkeen prozesatze-elementuak denbora errealean aztertzea

Epea	2021		2022		2023		2024	
	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.
Agente arduraduna	• IKTZ							
Agente laguntzaileak	• EJIE • Euskal Sektore Publikoko agenteen IKT arduradunak							
Eragina IKT ereduaren ezarpenean	Altua ● ● ●							
Beharrezko baliabide ekonomikoak	L (altua)							
Beharrezko giza-baliabideak	Ertaina ● ● ●							
Adierazleak	• Inplementatutako API tresna eta teknologien %, inplementatzeko planifikatutako guztiekiko							



Zk. Proiektua

5.2.2. Kalitatea kudeatzeko metodologiak bultzatzea eta hedatzea Euskal Sektore Publikoan

Deskribapena

Kalitatearen kudeaketa funtsezko eremua da EAEko sektore publikoaren IKT gobernantzan; izan ere, efizientzia handiagoa, prozesuen kudeaketa hobetzea, erabiltzaileen gogobetetze-maila handitzea edo gorabeherak murriztea dakar, besteak beste. Planteamendu horren ildotik, kalitatearen kudeaketa modu kohesionatuan egin behar dute euskal sektore publikoko eragile guztiek, IKT ereduan duten berariazko eginkizunaren arabera.

Horregatik, proiektu honen ardatza da Euskal Sektore Publikoan kalitatea kudeatzeko metodologiak sustatzea. Horretarako, lehenik eta behin egoeraren diagnostiko bat egin beharko da, honako hauek jasoko dituen:

- Kalitatea kudeatzeko zer metodologia dauden gaur egun Euskal Sektore Publikoan
- Zer puntuk, sistemak edo prozesuk dituzten inplementatutako kalitatea kudeatzeko metodologiak
- Zer puntuk, sistemak edo prozesuk ez dute mota horretako metodologiarik inplementatuta, eta horiek inplementatzea beharrezkoa izan daitekeen.

Azterketa hori egindakoan, kalitatea kudeatzeko metodologiak ezartzeko estrategia definitu beharko da, hala eskatzen duen osagai bakoitzerako. Estrategia horrek inplementazio hori egiteko gauzatu beharreko proiektuen multzoa bilduko du, eta aldaketa kudeatzeko jardueren definizioarekin osatu beharko da (komunikazioa, prestakuntza, eta abar). Jarduera horiek beharrezkoak dira metodologia horiek inplementatu behar diren osagaiaren kudeaketaren ardura duten rolek bereganatzen dituztela bermatzeko.

Funtsezko jarduerak

- Kalitatea kudeatzeko metodologiak ezartzeari buruzko egoeraren diagnostikoa
- Kalitatea kudeatzeko metodologiak inplementatzeko estrategia diseinatzea eta hedatzea, hala eskatzen duen osagai bakoitzerako

	2021		2022		2023		2024	
Epea	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.	1. Seihil.	2. Seihil.
Agente arduraduna			• IKTZ					
Agente laguntzaileak			• EJIE					
Eragina IKT ereduaren ezarpenean			Ertaina ● ● ●					
Beharrezko baliabide ekonomikoak			M (ertaina)					
Beharrezko giza-baliabideak			Ertaina ● ● ●					
Adierazleak			• Kalitatea kudeatzeko metodologiak inplementatu dituzten osagaien ehunekoa, identifikatutako osagai guztiei dagokienez					



Zk. Proiektua

5.2.3. Aktibo digitalen *marketplace* baten sorrera aztertzea

Deskribapena

Marketplace bat hainbat eragileren aktibo digitalak taldekatzen eta bistaratzen dituen atari bat da, eta horietarako sarbidea errazten du, atarian parte hartzen duen eragile bakoitzak gainerako eragileen aktiboak ezagutu eta erabili ahal izan ditzan.

Horrela, Euskal Sektore Publikoaren kasuan, *marketplace* bat sortzearen arrazoa da, IKT ereduari inplikaturako eragileen artean, eragileren batek garaturako edo erabilitako aktiboak bateratzea, berrerabilpen-politiken bidez beste eragile batzuek kontsumitzeko onar daitezkeenak.

Proiektu hori gauzatzeko, lehenik eta behin, aztertu beharko da ea egokia den euskal sektore publikoan *marketplacea* sortzea, IKTen ereduari inplikaturako eragileek aktiboak partekatzeko edo berrerabiltzeko izan dezaketen eskari potentziala kontuan hartuta. Eskari-potentziala identifikatu eta *marketplacea* sortzearen aldeko apustua eginez gero, katalogoaren barruan sartu beharreko aktibo digitalak aztertu beharko dira; besteak beste, aplikazioak, osagai berrerabilgarriak, APIa, funtzionaltasunak, botoiak eta abar.

Funtsezko jarduerak

- Euskal sektore publikoan aktibo digitalen *marketplace* bat ezartzearen egokitasuna aztertzea
- *Marketplace* sisteman sartu beharreko aktibo digitalak eta osagai berrerabilgarriak aztertzea eta hautatzea (aplikazioak, osagai berrerabilgarriak, APIak, funtzionaltasunak, botoiak, etab.)

	2021		2022		2023		2024	
Epea	1. Sei hil.	2. Sei hil.	1. Sei hil.	2. Sei hil.	1. Sei hil.	2. Sei hil.	1. Sei hil.	2. Sei hil.
Agente arduraduna			• IKTZ					
Agente laguntzaileak			• EJIE • Euskal Sektore Publikoko agenteen IKT arduradunak					
Eragina IKT ereduaren ezarpenean			Baxua ● ● ●					
Beharrezko baliabide ekonomikoak			M (ertaina)					
Beharrezko giza-baliabideak			Ertaina ● ● ●					
Adierazleak			• <i>Marketplace</i> -an aktibo digitalak dituzten euskal sektore publikoko eragileen %					

IKTPE 2021-2024 planaren **Ibilbide-orria** kronograma baten bidez bistaritzen da. **Kronograma** horrek Ekintza Planean sartutako **proiektuen ezarpenaren plangintza** aurkezten du.

Zk.	Proiektua
1. Ardatza	IKT gobernantza-eredua
1.1.	Euskal sektore publikoaren IKT gobernantza-funtzioak hedatzea
1.1.1.	Zeharkako gobernantza hedatzea
1.1.2.	Zerbitzuaren gobernantza hedatzea
1.1.3.	Arriskuen eta segurtasunaren gobernantza hedatzea
1.2.	IKT gobernantza-organoak hedatzea
1.2.1.	IKT Batzorde Estrategikoaren funtzionamendu-eredua hedatzea
1.2.2.	Zeharkako IKT gobernantza organo operatiboak garatzea eta abian jartzea
2. Ardatza	IKT soluzioak eta zerbitzuak
2.1.	Batera Zerbitzuen Katalogoa bultzatzea
2.1.1.	Batera Zerbitzuen Katalogoa formalizatzea eta haren kudeaketa- eta jarraipen-eredua definitzea.
2.1.2.	Batera Zerbitzuen Katalogoarekin lotutako hornidura-proiektuak diseinatzea eta gauzatzea.
2.1.3.	Batera Zerbitzuen Katalogoarekin lotutako bateratze-proiektuen plana diseinatzea eta gauzatzea.
2.1.4.	Batera Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen erabiltzaile-esperientzia baloratzeko sistematika bat ezartzea.
2.1.5.	EJIERen IKT Zerbitzuen Katalogoa eguneratzea eta zabaltzea.
2.2.	Soluzioak eta zerbitzuak garatzea azpiegituraren eremuan
2.2.1.	Euskal Sektore Publikoko edukiontzien hedapena eta sustapena
2.2.2.	Eusko Jauriaritzaren Cloud estrategia bultzatzea
2.3.	Komunikazioen arloko konponbideak eta zerbitzuak garatzea
2.3.1.	Komunikazioen segurtasuna indartzea
2.4.	Soluzioak eta zerbitzuak garatzea lanpostuaren esparruan
2.4.1.	Euskal Sektore Publikoko IKTen ELZ/CAUak modernizatzea
2.4.2.	Erabiltzaile-postuaren kudeaketa (mugikortasuna)
2.5.	Irtenbideak eta zerbitzuak garatzea zerbitzu korporatiboaren esparruan
2.5.1.	Adimen artifizialeko plataforma bat garatzea
2.5.2.	Blockchain plataforma bat garatzea
2.5.3.	Identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoko plataforma garatzea.
2.6.	Soluzioak eta aplikazioak modernizatzea eta arrazionalizatzea
2.6.1.	Beste erakunde batzuetara transferitu daitezkeen Euskal Sektore Publikoko soluzioen erregistroa definitzea eta mantentzea
2.6.2.	Euskal Sektore Publikoko aplikazioen erregistroa definitzea eta mantentzea
2.6.3.	Euskal Sektore Publikoko aplikazio kritikoak modernizatze eta arrazionalizatze estrategia definitzea
3. Ardatza	Teknologia aurreratuak eta berrikuntza
3.1.	Teknologia aurreratuak sartzeko Euskal Sektore Publikoan
3.1.1.	Euskal Sektore Publikoaren Datuaren Estrategia bultzatzea
3.1.2.	Zibersegurtasuna indartzea Euskal Sektore Publikoan
3.1.3.	Gauzen Interneten Estrategia (IoT) bultzatzea
3.2.	Berrikuntza teknologikoa bultzatzea Euskal Sektore Publikoan
3.2.1.	Teknologia berriak eta IKT zerbitzuak sartzeko behatokia sortzea
3.2.2.	Euskal sektore publikoan berrikuntza teknologikoa eta eraldaketa digitala sustatzeko metodologia ezartzea
4. Ardatza	IKTak eta pertsonak antolatzea
4.1.	IKT rol berriak txertatzea eta garatzea Euskal Sektore Publikoan
4.1.1.	Zeharkako gobernantza-funtzioak bultzatzeko rolak txertatzea eta garatzea
4.1.2.	Zerbitzuaren gobernantza-funtzioak bultzatzeko rolak txertatzea eta garatzea
4.1.3.	Rolak sartzeko eta garatzea, arriskuen gobernantza-funtzioak eta segurtasuna sustatzeko
4.2.	Euskal sektore publikoko langileen gaikuntza digitala
4.2.1.	EAEko sektore publikoko IKT prestakuntza-eredua garatzea
4.2.2.	E-learning tresna informatikoak zaintzeko eta eguneratzeko sistematika definitzea
5. Ardatza	IKTen kudeaketa aurreratuak
5.1.	IKT proiektuak kudeatzeko eta garatzeko metodologiak harmonizatzea
5.1.1.	Euskal sektore publikoan IKT proiektuak kudeatzeko ARINbide metodologia hedatzea
5.1.2.	Agile metodologiaren ezarpena bultzatzea eta Euskal Sektore Publikoan lan egiteko modu azkarrak landu
5.1.3.	DevOps-ak esponsorizatzea eta sustatzea Euskal Sektore Publikoan
5.1.4.	Proiektu teknologikoen berri emateko eta jarraipena egiteko sistematika eta tresna komunak definitzea
5.2.	Euskal Sektore Publikoko teknologia-estandarren hedapena
5.2.1.	Euskal sektore publikoko IKT arkitekturaren bilakaera eta modernizazioa
5.2.2.	Kalitatea kudeatzeko metodologiak bultzatzea eta hedatzea Euskal Sektore Publikoan
5.2.3.	Aktibo digitalen <i>marketplace</i> baten sorrera aztertzea


5. Kapitulua

IKTPEren ezarpen- eta jarraipen-
eredua

5.1. | IKTPE 2021-2024 ezartzeko eredua

IKTPE 2021-2024 delakoaren Ekintza Planak 4 urtez proiektu ugari egitea aurreikusten duela ikusita, eta haren kudeaketa optimizatzeko asmoz, hura eraginkor bihurtzea planteatzen da, **Urteko Kudeaketa Planak** eginez, gauzatu beharreko proiektu eta/edo jarduera espezifikoak urtero planifikatzeko mekanismo gisa.

IKTPE 2021-2024 kudeatzeko urteko planak



2021-2024 IKTPEren hasierako bertsioa Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez berrikusi eta onartu behar da, baina berrikuspenetan ez da onespenez behar.

Gobernu Kontseiluak definitutako IKTen politika eta estrategiaren **jarraipena, ebaluazioa eta kontrola** egiteko eskumena duen **IKTen Batzorde Estrategikoa** arduratuko da Urteko Kudeaketa Planak egin, onartu eta ebaluatzeaz, 36/2020 Dekretuaren arabera.

Alde horretatik, IKTen Batzorde Estrategikoa eskatu ahal izango du **IKTZren laguntza eta babes** urteko **kudeaketa-planak egin eta ebaluatzeko**, aipatutako 36/2020 Dekretuan IKTZri esleitutako eskuduntzetan oinarrituta.

5.2. | 2021-2024 IKTPEn Aginte Taula Integrala

Urteko Kudeaketa Planen osagarri gisa, IKTPE 2021-2024 planaren **Aginte Taula Integrala** funtsezko tresna da Plan Estrategikoaren ezarpenaren jarraipena egiteko. Aginte-taula integral honek bi mailatako adierazleak biltzen ditu: **etorkizuneko IKT ereduaren adierazle estrategikoak eta proiektuei lotutako adierazleak.**

Adierazleek balio objektiboak jasotzen dituzte IKTPE 2021- 2024 plana indarrean egongo den urte bakoitzerako. Balio horiek, nolana ere, erreferentziazko balioak dira, eta Plan Estrategikoaren ezarpenaren eta jarraipenaren esparruan berrikusi ahal izango dira, ezarpen horren bilakaera eta Euskal Sektore Publikoaren baliabideak eta gaitasunak kontuan hartuta.

Aginte Taula Integraleko adierazleak



*Adierazle horiek **aurrerapen-maila eta lortutako lorpen nagusiak** islatzen dituzte, **etorkizuneko IKT Ereduaren funtsezko elementuen** inguruko IKTPE 2021- 2024 inplementazioaren bitartez. **Adierazle horiek berariazko helburuak islatuko dituzte** 2021-2024 aldirako IKTPEn indarraldiko urte bakoitzerako, ezarpenaren emaitzen plangintza eta jarraipena errazteko.*


*Adierazle horiek IKTPE 2021-2024 planaren ekintza-planean aurreikusitako proiektu bakoitzaren garapenaren bidez lortutako **emaitza** nagusiak erakusten dituzte. Adierazle **horiek berariazko helburuak islatuko dituzte** IKTPE 2021-2024 planaren indarraldiko urte bakoitzerako, proiektuen gauzatzearen jarraipena eta emaitzen neurketa errazteko.*



Gobernu Kontseiluak definitutako **IKTen politika eta estrategiaren jarraipena, ebaluazioa eta kontrola** egiteko eskumena duen **IKTen Batzorde Estrategikoa** arduratuko da Aginte Taula Integralaren jarraipena eta ebaluazioa egiteaz.

Alde horretatik, IKT Batzorde Estrategikoak eskatu ahal izango du **IKTZren laguntza eta euskarria Aginte Taula** Integralaren elikaduran, bai eta horren **inguruko txostenak** egitea ere, 36/2020 Dekretuan IKTZri esleitutako eskuduntzetan oinarrituta.

Etorkizuneko IKT ereduaren adierazle estrategikoak



Adierazleak	Helburua	2021	2022	2023	2024
• Batera Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuak erabiltzeko EJI Erekin formalizatutako akordio bati atxikitako agenteen %	%100	%65	%80	%100	%100
• IKTen arloan funtzio espezifikoak dituzten lanpostuetan diharduten emakumeen %	%40	-	%25	%33	%40
• Ongi amaitutako teknologia berrien inguruko proiektuen %, planifikatutako proiektu guztiei dagokienez	%70	%15	%30	%50	%70
• Zerbitzu eta teknologia interesgarrien inguruko esparru-kontratuei atxikitako agenteen %	%100	%75	%80	%100	%100
• Plan teknologiko espezializatuak dituzten euskal sektore publikoko eragileen %	%60	%20	%40	%50	%60

Proiektuei lotutako adierazleak

Proiektua	Adierazleak	Helburua	2021	2022	2023	2024
1.1.1.	<ul style="list-style-type: none"> Garatu diren eta agente arduradunari esleitu zaizkion zeharkako gobernantza-funtzioen ehunekoa 	%100	-	%50	%75	%100
1.1.2.	<ul style="list-style-type: none"> Garatu diren eta agente arduradunari esleitu zaizkion prozesuak dituzten zerbitzuaren gobernantza-funtzioen % 	%100	-	%50	%75	%100
1.1.3.	<ul style="list-style-type: none"> Garatu diren eta agente arduradunari esleitu zaizkion arriskuen eta segurtasunaren gobernantza-funtzioen % 	%100	-	%50	%75	%100
1.2.1.	<ul style="list-style-type: none"> IKTen Batzorde Estrategikoaren funtzionamendu-ereduaren inguruan inplementatutako hobekuntza-jarduketaren ehunekoa, identifikatutako hobekuntza-jarduketa guztiei dagokienez 	%100	-	%50	%100	%100
1.2.2.	<ul style="list-style-type: none"> IKTen gobernantzarako organo operatiboen inguruan inplementatutako hobekuntza-jarduketaren ehunekoa, identifikatutako jarduketa guztiei dagokienez 	%100	-	%50	%100	%100
	<ul style="list-style-type: none"> Eratutako IKT gobernantzako organo operatiboen ehunekoa, zehaztutako organo guztiei dagokienez 	%100	-	%50	%100	%100
2.1.1.	<ul style="list-style-type: none"> Definitutako normalizazio eta etengabeko hobekuntzako metodologia duten IKT zerbitzu normalizatuen ehunekoa, Batera Zerbitzuen Katalogoan sartutako zerbitzu guztiei dagokienez 	%100	%15	%90	%100	%100
2.1.2.	<ul style="list-style-type: none"> Arrakastaz amaitutako hornidura-proiektuen ehunekoa, planifikatutako hornidura-proiektuei dagokienez 	%100	%25	%60	%100	%100
2.1.3.	<ul style="list-style-type: none"> Arrakastaz amaitutako konbergentzia-proiektuen ehunekoa, planifikatutako konbergentzia-proiektuei dagokienez 	%100	%10	%50	%100	%100
2.1.4.	<ul style="list-style-type: none"> Batera Zerbitzuen Katalogo zerbitzuen erabilzaileen batez besteko asebetetze-maila 	Altua (>%75)	-	Ertaina	Altua	Altua
2.1.5.	<ul style="list-style-type: none"> EJI Eren Zerbitzuen Katalogoan sartutako Batera Zerbitzuen Katalogo zerbitzuen ehunekoa 	%100	-	%70	%100	%100
2.2.1.	<ul style="list-style-type: none"> Edukiontzietan sartutako aplikazioen ehunekoa, edukiontzietan sartzeko planifikatutako aplikazioei dagokienez 	100%	-	%15	%75	%100

Proiektuei lotutako adierazleak (jarraipena)

Proiektua	Adierazleak	Helburua	2021	2022	2023	2024
2.2.2.	• Hodeian garatutako aplikazioen %, Euskal Sektore Publikoko aplikazioei dagokienez	%65	-	%15	%35	%65
	• Cloud plataformetara migratutako aplikazioen ehunekoa, migrazioarako planifikatutako aplikazio guztiekiko	%100	-	%15	%40	%100
2.3.1.	• Komunikazio-protokolo seguruak erabiltzen dituzten komunikazio-lineen ehunekoa, dauden komunikazio-linea guztiei dagokienez	%100	-	%35	%65	%100
	• Ezarritako SDWAN sareen ehunekoa, inplementatzeko planifikatutako sareei dagokienez	%100	-	%60	%100	%100
2.4.1.	• IKTen erabiltzaileen batez besteko asebetetze-maila	Altua (>%75)	-	Ertaina	Altua	Altua
	• Adimen artifizialean oinarritutako tresnen bidez konpondutako intzidentzien %, intzidentzien guztizkoari dagokionez	%60	-	%35	%60	%60
2.4.2.	• Ezarritako profilen ehunekoa, euskal sektore publikoko eragileek eskatutako profilei dagokienez	%80	-	%80	%80	%80
2.5.1.	• Plataformaren agente erabiltzaileen %-a, AARI lotutako premiak dituzten agente guztien aldean	%100	-	%20	%70	%100
2.5.2.	• Plataformako agente erabiltzaileen %, <i>blockchain</i> programari lotutako premiak dituzten agente guztiei dagokienez	%100	-	%20	%70	%100
2.5.3.	• Identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoko plataformarekin integratutako zerbitzuen ehunekoa	%100	-	%40	%70	%100
2.6.1.	• Transferitu daitezkeen software-soluzioen erregistroaren urteko eguneratzeen kopurua	Urtean 2	-	2	2	2
2.6.2.	• Aplikazio kritikoen erregistroaren urteko eguneratzeen kopurua	Urtean 2	-	2	2	2
2.6.3.	• Modernizatutako eta arrazionalizatutako aplikazioen ehunekoa, arrazionalizatzeke planifikatutako aplikazio guztiekiko	%100	-	-	%100	%100

Proiektuei lotutako adierazleak (jarraipena)

Proiektua	Adierazleak	Helburua	2021	2022	2023	2024
3.1.1.	<ul style="list-style-type: none"> Ezarritako datuaren kudeaketa-prozesuen ehunekoa, zehaztutako datuaren kudeaketa-prozesu guztiei dagokienez 	%100	-	%20	%50	%100
3.1.2.	<ul style="list-style-type: none"> Segurtasun-intzidente larrien murrizketaren ehunekoa, aurreko urteko aldiari dagokionez 	%50	-	%15	%30	%50
3.1.3.	<ul style="list-style-type: none"> IoT oinarri hartuta garatutako erabilera-kasuen ehunekoa, planifikatutako erabilera-kasu guztiekiko 	%100	-	%20	%70	%100
	<ul style="list-style-type: none"> IoT-n oinarrituta ezarritako soluzioen %, inplementatzeko planifikatutako soluzio guztiekiko 	%100	-	%20	%60	%100
3.2.1.	<ul style="list-style-type: none"> Teknologia berriei buruz urtero argitaratutako eta euskal sektore publikoari zabaldutako azterlanen kopurua 	Urtean 4	-	4	4	4
	<ul style="list-style-type: none"> Sartutako IKT osagai berrien ehunekoa, identifikatutako IKT osagai guztiei dagokienez 	%40	-	%5	%20	%40
3.2.2.	<ul style="list-style-type: none"> Metodologian oinarrituta arrakastaz gauzatutako proiektuen ehunekoa, planifikatutako proiektu guztiekiko 	%70	-	%20	%40	%70
4.1.1.	<ul style="list-style-type: none"> Sartutako edo garatutako zeharkako gobernantza-rolen ehunekoa, planifikatutako rol guztiekiko 	%50	-	-	%25	%50
4.1.2.	<ul style="list-style-type: none"> Sartutako edo garatutako zerbitzuaren gobernantza-rolen ehunekoa, planifikatutako rol guztiekiko 	%50	-	-	%25	%50
4.1.3.	<ul style="list-style-type: none"> Txertatutako edo garatutako arriskuen eta segurtasunaren gobernantza-rolen %-a, planifikatutako rol guztiei dagokienez 	%50	-	-	%25	%50
4.2.1.	<ul style="list-style-type: none"> IKTen autoebaluazioa erabiltzen duten langileen ehunekoa 	%80	-	%30	%60	%80
	<ul style="list-style-type: none"> IKT prestakuntza jasotzen duten langileen ehunekoa 	%60	-	%30	%45	%60
4.2.2.	<ul style="list-style-type: none"> Sartutako e-learning tresnen ehunekoa, horiek txertatzeko planifikatutako tresnei dagokienez 	%100	-	-	%100	%100

Proiektuei lotutako adierazleak (jarraipena)

Proiektua	Adierazleak	Helburua	2021	2022	2023	2024
5.1.1.	• ARINbide metodologia erabiltzen duten eragileen ehunekoa	%40	-	%10	%25	%40
5.1.2.	• Agile metodologia erabiltzen duten eragileen ehunekoa	%40	-	%10	%25	%40
5.1.3.	• DevOps erabiltzen duten agenteen %	%40	-	%10	%20	%40
5.1.4.	• Tresna erabiltzen duten euskal sektore publikoko agenteen ehunekoa	%100	-	%30	%75	%100
5.2.1.	• Ezarritako API tresnen eta teknologien ehunekoa, inplementatzeko planifikatutako tresna eta teknologia guztiekiko	%100	-	%30	%50	%100
5.2.2.	• Kalitatea kudeatzeko metodologiak inplementatu dituzten osagaien ehunekoa, identifikatutako osagai guztiei dagokienez	%75	-	%25	%50	%75
5.2.3.	• <i>Marketplace</i> -an aktibo digitalak dituzten euskal sektore publikoko eragileen %	%100	-	%30	%80	%100

Eranskina

A.1. Hornidura-proiektuak

A.2. Konbergentzia-proiektuak

A.3. Proiektuak gauzatzeko behar diren baliabide ekonomikoak

A.4. Herritarren Segurtasunerako IKTen Plan Estrategikoa

A.1. | Hornidura-proiektuak

Batera Zerbitzuen Katalogoan zerbitzu berriak sartzeko eta/edo aldatzeko, EJIEk, Euskal Sektore Publikoko IKT organo kudeatzailea den aldetik, zenbait hornidura-proiektu egin behar ditu, zerbitzu bakoitzari dagokion gaitasuna eskuratzeko eta bezeroei zerbitzuak eskaini ahal izateko.

2021-2024 IKTPEn esparruan identifikatutako hornidura-proiektuak



Urruneko konexio segurua (VPN) hornitzea



Blockchain plataformaren hornidura




AAren plataformaren hornidura eta automatizazioa



Segurtasun Eragiketen Zentroa (SEZ/SOC) hornitzea

Hornidura-proiektuen gauzatzea planifikatzea



A.2. | Konbergentzia-proiektuak

Konbergentziari atxikitako **euskal sektore publikoko eragileek**, Batera Zerbitzuen Katalogoan aldatutako eta/edo sartutako zerbitzuen kontsumoak **konbergentzia-proiektu** batzuk egitea eskatzen du, zerbitzu bakoitzari dagokion gaitasuna eskuratzeko eta zerbitzu horiek **erabili ahal izateko**.

Jarraian, Batera Zerbitzuen Katalogoan deskribatutako zerbitzuak erakundeen eskutik jaso ahal izateko definitutako konbergentzia-proiektuak erakusten dira:

IKTPE 2021-2024 planaren esparruan identifikatutako konbergentzia-proiektuak



Hosting



Workplace



Segurtasun
Eragiketen
Zentroa
(SEZ/SOC)



VoIP



Informatika-
lanpostua



Blockchain
plataforma



VPN



Inprimatzea



AA plataforma eta
automatizazioa



Bideokonferentzia



Elkarlan



Big Data
plataforma

Alde horretatik, garrantzitsutzat jotzen da **erakundeek berek ezartzea proiektu horien denbora-plangintza**, bakoitzaren beharren eta gaitasunen arabera, eragile bakoitzari dagozkion **proiektuak 2024ko abenduaren 31 baino lehen arrakastaz amaitzeko helburu orokorrekin**.

A.3. | Proiektuak gauzatzeko behar diren baliabide ekonomikoak

Jarraian, IKTPE 2021-2024 planaren ekintza-planean aurreikusitako proiektuen "**beharrezko baliabide ekonomikoak**" atalean islatutako balio bakoitzari dagozkion aurrekontu-tarteak jasotzen dira:

Balioa	Horri lotutako aurrekontu-maila
XS (oso baxua)	15.000 €-tik beherako aurrekontua
S (baxua)	15.000 € baino gehiagoko eta 60.000 € baino gutxiagoko aurrekontua
M (ertaina)	60.000 €-tik gorako eta 139.000 €-tik beherako aurrekontua
L (altua)	139.000 €-tik gorako eta 214.000 €-tik beherako aurrekontua
XL (oso altua)	214.000 €-tik gorako aurrekontua

A.4. | Herritarren Segurtasunerako IKTen Plan Estrategikoa


4.1. 2021-2024ko bilakaera-plana

Negozio-kasuak, egungo sistemen bilakaera-beharrak eta ekimen estrategikoak identifikatu ondoren, ekimenak aztertzeko, definitzeko eta lehenesteko lan bat egin da, eta kapitulu honetan aurkezten diren ibilbide-mapak osatu dira.

Ibilbide-plan horiek ekimen teknologikoen edo garrantzi estrategiko handiagoko proiektuen goi-mailako plangintza egiten dute laurteko honetarako.

IBILBIDE-MAPAK INTERPRETATZEKO GIDA


Honako kolore-kode hau erabili da ekimenen ardatz estrategikoak identifikatzeko:




Ekimen gehienek ardatz estrategiko desberdinetatik eratorriak eta haien gaineko eragina dute; ekintza-ildo beraren gainean bi edo hiru kolore erabiliz adierazten dira sinergiak.

Ekimen estrategikoak letra lodiz nabarmentzen dira.

4.1.1 Azpiegitura-ibilbidearen mapa




4.1.2 Arkitekturaren ibilbide-mapa




4.1.3 Aplikazioen ibilbide-mapa



4.1.4 Datuaren analitikaren mapa



4.1.5 Zibersegurtasuneko ibilbide-mapa



4.1.6 IKT gobernu-ibilbidearen mapa

